



AZAROAREN 25a-EMAKUMEENGANAKO INDARKERIAREN AURKAKO NAZIOARTEKO EGUNA DELA-ETA EGINGO DEN ADIERAZPEN INSTITUZIONALA

Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Eguna dela-eta, ERMUko Udalak jakinarazi nahi du indarkeria matxistak eragindako gaitz sozialaren aurka lanean jarraitzeko konpromisoa duela.

Gai honen inguruan antolatuko diren ekintzak emakumeen babesari eta autonomia bermatzera egon behar dira zuzenduta, indarkeria mota honen biktima nagusiak emakumeak baitira.

Dena dela, emakumeenganako indarkeria ez da ulertu behar “emakumeen” arazo legez, baizik eta kultura maskulino-patriarkalak eragindako desberdintasunaren adierazgarri nagusitzat; izan ere, kultura horrek indarkeria mota hau eragin eta toleratzen du, eta gauza bera gertatzen da era desberdinetan eta esparru desberdinetan indarkeria hori gauzatzen dutenekin ere.

Beraz, alde batetik, arau horiek Emakumeen eta Gizonen Berdintasunean oinarritutako kultura baterantz bideratu behar dira; eta, bestetik, gizonak estrategia horietan sartu behar dira, indarkeria mota oro desagerrarazteko borrokan emakumeekin batera aktiboki kolaboratzera konprometituaz.

Hori dela eta, udal honek ONARTU EGITEN DU KONPROMISOA, bere eskumenen esparruan eta indarreko legeria aplikatuz, berdintasunaren aldeko eta emakumeenganako indarkeriaren aurkako udal politika aktibo, oso eta koordinatua garatzeko. Udal politika horren barruan, beste tresna batzuen artean, indarkeriaren biktima diren emakumeen arretarako tokiko protokoloa sartu behar da.

Aurten, DEI BEREZIA EGITEN DIEGU herriko gizonei, batetik, emakumeenganako indarkeriaren aurkako konpromiso aktiboa onar dezaten, eta, bestetik, gaur egun oraindik gizartean hedatuta dauden jarrera eta mentalitate sexistak zalantzan jartzeko.

Halaber, herritar guztiak, eta bereziki gizonak, **azaroaren 25ean, asteartea, arratsaldeko 7etan Orbe Kardinalaren plazan** izango den KONTZENTRAZIOAN PARTE HARTZERA GONBIDATZEN DITUGU, bai eta Emakumeenganako Indarkeriaren aurkako Nazioarteko Eguna dela-eta Ermuan izango diren ekitaldi guztietan.